

Bidaia erromantizismoan barna

'PARMAKO KARTUSIA'

Izenburua. *Parmako Kartusia*.
 Jatorrizko izenburuak. *La chartreuse de Parme*.
 Egilea. Stendhal (Henri Beyle).
 Itzultzailea. Jon Muñoz
 Argitaratze urtea. 2007.
 Argitaletxeak. Alberdania eta Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).

INMA ERREA

EUSKARATU berri den nobela honen pasarte batean Borda kalonjeak aholku bitxia ematen dio Fabrice *Parmako Kartusiaren* protagonistari, erbestean ihes eginda dagoelarik oharkabean pasatzeko: irakurtzeari higuina agertzea, eta 1720 geroztik argitaratutako ezer ez irakurtzea, salbu,

gehienez ere, Walter Scottek (1771-1832) idatzitako eleberriak. Stendhalek (1783-1842) eginiko aipuak berezko zentzua du kontakizunean, Stendhal bera bezala napoleonzale liberal gisara deskribatzen zaigun Fabriceri bere benetako ideologia ezkutatzeko aldera kontserbadore itxurak egiteko beste aholku batzuen artean baitator aipatutakoa, eta Sir Walter Scott eskoziar *toryak* (kontserbadorea, beraz, eta *baronet* titulua eskuratzera iritsia) idazle egokia dirudi zeregin horretan.

Stendhalek nobela idatzi zuenetik 169 urte pasa eta gero, ordea, ironiaz betetako paradoxa dirudi aipuak: izan ere, Walter Scott eta Stendhal, sorterri eta ideologia diferenteak gorabehera, erroman-

tizismo literarioko korrante nagusien ordezkari bilakatu dira Literaturaren Historian. Are txundigarriagoa da Stendhalen nobelako Scotten aipamena kontuan hartzen badugu Walter Scotten eleberriak Erromantizismoko nobelagintza historikoaren ikur eta gailur bilakatu zirela, eta *Parmako Kartusia* nobela historikotzat eta, aldi berean, erromantizismoaren paradigmatzat jotzen dela.

Parmako Kartusia, ordea, harantzago doa. Idazlan erromantikoen ezaugarriez (sentimenduen gorespina eta abenturaren gorazarrea) hornitua da, eta Errestaurazioaren garaiko Italiaren berri ematen digun nobela historikoa ere bada, baina, askoz gauza gehiago atzeman ditzakegu bertan. Esate bate-

rako, Stendhalek zoriontasunaren bila aritzeko herrialde ezin egoikiagotzat aurkezten du hainbeste miresten zuen Italia, eta harekiko liluraren eraginpean poetikotasun handiz eta errealismotik aldenduta irudikatzen digu.

Miragarria da, bestalde, kontakizun korapilatutakoez osaturiko nobela mardul honetan irakurleek gertaeren matazan galtzeko arriskurik ez izatea. Eta nabarmentzeko modukoa da, baita ere, politikagintzaren inguruko deskribapen eta juzkuen gaurkotasuna, Stendhalen hautu ideologikoen (Napoleoni zion mirespen itsua, kasu) eta iragandako urte-kopuruaren gainetik. Paisaiak deskribatzeari arbuio eginik pertsonaien sentimenduak adierazten tema-

tzen zen Stendhalek oso ongi zedarritu zituen pertsona askorengan gailentzen diren boterearekiko grina eta diruzaletasuna.

Oso interesgarria eta baliagarria da, bestalde, Jon Muñoz nobelaren itzultzaileak hitzaurrean osatutako glosarioa. Nobela hau irakurtzeko ez da beharrezkoa, berez, beste inongo azalpenik, baina Muñozek ematen dituen argibideek eleberriaren irakurketa aberasten dute. Deigarria da, adibidez, itzultzaileak isiltasunaz egiten duen oharra, Waterlooko batailako hotsak aipatuta: garai hartako gizon-emakumeak orain baino askoz giro isilagoan bizi ziren, eta, horrenbeste, guda-hotsek guk imajinatu baino askoz neurri handiagoan erasanen zituen.